

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
67n. ZENBAKIA  
UZTAILA  
DAGONILLA  
1983



*Morlazz*



**GORLIZ'KO ONDARTZA EDERRA  
BIZKAI'KO TXOKO ZORAGARRIA**

## Euskalerritik Mundura Begira

# NIKARAGUA TA AITASANTUA

Amerika'ren gerrian dago Nikaragua. Txikia da (148.000 Km. eta 2 milloi biztanle). Txiro edo pobrea ere bada: ez du arroliorik (petroleorik); ez du meatzik, eban urre-meatz kokorak agortu bait jakoz. bere aberastasun guzia nekazaritza da.

Bertako jendea, odol naasikoa da geiena % 69. % 17, zuriak dira, eta % 9, beltzak. Inditarrak, oso gutxi: % 5 bakarrik.

Jendetza ori jende landerra da ia dana; ezjakiña, txiroa, nagia, ez-bear gorriam bizi dana. Kupidagarria.

Kupidagarria izan da Nikaragua'ko edestia ere, ez bait dau pakerik ezagutu 1821'e an askatasuna lortu eban ezker, urte labur batzuetan izan ezik. Adibidez, Iturbide'tar Augusten Mexiko'ko inperatorearen menpeko probintzi izan zanean, edo, 1893'tik 1909'ra Zelaya Lendakaria —Nikaragua'k izan duan lendakaririk bikaiñena—, agintaritzan egon zanean. Ez dira urte asko Somoza'tarren diktadura borroka bizian amaitu zala. Orain ordea, Somozatarren ondorean, nora ote doaz «sandinistak»?

\* \* \*

Nikaragua'n izan berria dogu Jon Paul II'an. Ez dau ibillera gozoa izan. Asarretu jakozan sandinistak. Ta asarre gelditu dira sandinista ez diranak ere, aiek, sandinistak, beren asarrea oiuka, zakarki, agertu ebenlako. Asarre orren zioa edo motibua Aitasantuaren mintzaldiak izan ziran. Ez ote zan ba Aitasantua egoki mintzatu? Gure epaia jaurti baiño len euki daiguzan xeetasun auek goan:

— Mundu guztiak nai izaten daula Aitasantuaren itzak bere politikaren onerako erabilli. Ori gertatu zan Nikaragua'n. Ori gertatuko da Poloni'n ere, lerro auek idazten dodazanean Poloni'ra bait doa Aitasantua.

— Ekintza auetan eta izketamota auetan Aitasantuak ez dirala, utseziñak; atzipetu edo engañatu daitekezela; oker jokatu daikeela; Ez al eben oker jokatu, Franko'rekin, XI eta XII Pio Aitasantuek?

— Aitasantuen jokaeran, garrantzi aundia izaten dabela bere

inguruko gizonek. Esaten yakena esaten dabe, neurri aundian. Aitasantuek, ezin bait daikeez berak, laguntzarik gabe, lurralde guztietako arazoak zeatz ezagutu. Arrazoiarekin edo arrazoirik gabe jendeak maiz klean dioskunez, erdi-erlijioso dan Anaidi ondo ezagun bateko gizonek indar aundia omen dabe orain Aitasantuaren inguruan. Dana dala, Jon Paul II'aren gaurko izkera eta Brasill'en erabili ebana ez dira berdiñak.

— Nikaragua'ko egoera, arras illuna dala. Bada an aberatsen diktadura bir-ezarri baten arriskua. Diktadura orren aurka ari dira sandinistak. Eta zorion beroak merezi dituzte. Baiña bada, beste aldetik, komunismuaren diktaduraren arriskua ere. Ta ez ote dira sandinistak alderdi ontara erortzen ari?

Iparramerika'ren agintaritzala alde batetik. Errusi'rena besterik. Bi menpetasun oietan zein ote da okerrera? Pentsa beie ori, gure errian EE'ren eta HB'ren jarraitzale diranak.

LATIEGITAR BIXENTE

# MINISTERIO DE CULTURA

DELEGADO PROVINCIAL DE

URZAYA

Depositado a las 10:30 horas del día

22

de

Julio

de 1983

ZER

El Delegado Provincial,

Conforme:

**ATSEDENA**

## GAURKO GIZARTEA

Gure bizi-erea, bizi-modua, gaurko gizarte onetan geroago ta geiago berezia da, ez gara lenago lez bizi.

Orduak eta orduak lan egiten doguz, baiña geienok jesarrita, gorputzari neke aundirik emon barik eta, ori bai, burua ondo bero daukagula.

Eta eguneroko lanaren gaiñera eguneroko ardurak, atsekabeak, burrukak eta alkar iraintzea eta mintzeak dagoz, eta oneik gure buruaren eta biotzaren berotasuna goragoko mailletara jasoten dabe.

Azterpen au irakurle askorentzat baliokoa izango dala uste dot.

## GAURKO GAISO-ALDIAK

Gizartearen egoera larri ta berezi onek gure osasunari bere ikutua ta bere eragiña emoten dautsoz, bere eztena sartzen dautsola esan geinke.

Eta orra or, gu, gizon aurreratuok, nekatu bako lana egiten dogunok, gaisorik edo gaisotzeko arriskuan!

Zelako gaisoak: Biotzekoa (infartoak) zan-estua (tentsiñoa), kirio-gaisoak edo nerbioetakoa eta emen ardurakeria, edo «ansiedad», «surmenage» edo gogo jausia, «estress» edo lan-estua eta abar.

Gaiso oneik ez dirala gaisoak be esan lei, eta zelako indarra artu daben aspaldion!

Eta ardura aundia artu bear osasunari eusteko ta biziteko.

## ATSEDENA

Gaiso-aldi oneitara ez sartzeko edo sartu danak urten dagian, bide batzuk artzen dauetz gaurko gizarteak.

Olako bideak beti artu dira. Igandea esaterako atsedena artzeko antxiñatik jarria da. Baiña orduan beste atsedena-mota bat bear zan! Gaur larunbata be lanetik kanpo ateraten da eta noizean bein olako zubi luze batzuk egiten dira jaiak ostiralez edo ostegunez izaten diranean.

Gaiso-aldi orretara ez sartzeko, noizean bein eguneroko arazoak aitzu eta beste giro baten bizitea lortu bear da. Eta ori, gaisotu baiño lenago, gaisoari aurea artuta egitea ohea da.

Ez da naikoa norberaren etxean atsedena artzea. Giroa aldatu bear da eta beste biziera batzutan bizi dan jenteagaz artu-emonetara sartu, orrelan norberaren lanerako nasaitasuna, al ba'da, lortzeko.

## OPORRALDIA

Or argi agiri dala uste dot, gaurko gizonak oporraldia bear dauala.

Langilleai illebeteko oporraldia emoten jake eta euren kontura lan egiten dabenak be beste orrenbeste egin bear leukee, eta ille orretan benetako oporraldia artu.

Zori txarrez, ille osoa artu ezin dabenak asko izango dira eta artu gura ez dabenak be bai, baiña, ez dagigun aitzu osasuna dala lenengo eta nerbera il ezkeru lagunik onena galtzen dogula.

Udaldi ta oporraldi atsedensua opa dautsegu gure irakurle guztiai eta geuk be zenbaki onegaz ille biko lana beteten dogu. ONDO IZAN.



# AURRE-APRAIZ, OLERKARI

Euskal erriak ba-dabez euren seme argiak, gai askotan izan be. Guri olerkaritzan jardunak jakuz berarizko interesgarriak. Oneik doguz, pago arteko tantai aundi batzuen antzera, gure erria jantzi ta ospe-aintzaz beteten dauskuenak.

Onelakoak goratzea, euren lanean jarraitu dagian batez be, duda barik dogu zeregin bikaiña.

Nik gaur Ajangiz'eko seme Aurre-Apraiz-tar Balendin, olerkari bikaiña, goratu nai neuke, egin dauskun eta aurrerantzean be, egingo dauskun euskal arloko lana, poesi ta olerki-lana berariz aitaturik.

Zati bitan bananduko dot artikulu au; lenengo zatiak Balendik zelako gizasemea dogun adierazoko dausku, eta bigarrenak zelako olerkari.

## GIZONA

Olerkari ta idazle dozu Aurre-Apraiz-tar Balendin, eta Gernika'tik ur-samar daukagun Ajangiz erritxoan jaiotako 1912-11-3-an, elizaldearen bekaldean, Mendieta-Agerre etxaguntzan. Bizi be ementxe bizi da, joan-etorriren batzuk or zear egiña dogunarren.

Ez eban egin izan bigarren maillako ikasketarik; baiña, etxean eta eskolan izan eban aziera onari jarraituz, eta buru argikoa izanik, irakurteko beti izan dauan zaletasunez eta jente ikasiak izan dituan adiskidetasunezko artu-emonai esker, ikasienez be, ezetariko ingera barik, ibilli al izateko bestean landua dogu.

Ikastetxeetan luzaro ikasten ibillia ez dala be, asko ikasitako idazle ta olerkarien artean ba-dira, idazle oni euren olerki ta idazlanen eritxia eskatu dautsenak.

Guatemala'ko Itxastex Nagusiko buru edo dekanoa bein, F. Gartzia Lorka-ren olerkereaz lilluratuturik ei egoan; eta J. Zaitegi'k ari: «Auxe baiño be bikaiñagoa daukagu guk, ba». Aurre-Apraiz-en poesi

bat emon ei eutsan erderara itzulita; irakurri eban, leen baiño lilluratuago geratu ei zan.

Biozpera, bakar-zale dogu Ajangiztarra, benetako olerkariak diranez; baiña ba-daki alai ta pozik lagun-arteko bizitza adiskideakaz emoten be.

Gazte samur eta ameslari zala, gerratean esku artu eban; zauri-zauritua izan zan, batez be Artxandan, eta arik iru egunera atxilotua.

Bereak eta bost ikusi zituan gaixotegirik gaixotegi, atxillo-zelai ta baitegiatan, lau illabetez jagi barik eta urtebetean errenka, makuluekin lenengo ta maki-leaz gero.

Beronek esan oi dauanez, toki illun baizen loi areitan ikusi ta sasan izan zituan oiñaze, atsekabe, ezbehar eta mingostasunak bizitza guztirako goibeltasunezko zauria ezarri eutsen bere gogo minberan.

Guraso ta anai-arrebakin (neba-arreben artean amargarrena ta gazteena da berau) ondo ikasi izan eban euskeraz, amaren altzoan asita, etxean eta errian, aditza erabilten, joskera zuzen, esakera, itz eta euskeraren ezkutu guztiak...

Gero, eleder zaletasunak eta euskal erriaganako maitasun sutsuak eragiñik, errian ikasiak eukazan akatsak-eta zuzentzeko, gramatikaz bir-ikasi eban ez gitxi, eta arrezkero, bere bizi guztian alegindu izan da gure euskera, aberri-izkuntza, sustraitik ikasten. Gipuzkeraz ondo daki, baita beste euskalkiak be nainko ondo. Euskera garbi-zalea dogu; baiña ez gero garbikeri-zalea. Mikel Zarate'bere *Bizkaiko Euskal Idazleak* liburuan: «Baditu alako garbikeritxo batzuk; baiña olerkari gartsu ta etorritsua da, biotz-ondo andikoa» (253 orrialdean).

Gazte zalarik, guda aurretik asi zan idazten, Zornotza'ko *Jaungoiko-Zale'n*, esate baterako, gero, Guatemala'ko *Euzko-Gogoa'*, *Egan. Aranzazu, Karmel, Olerti'n* eta abar, jarraiturik.

Ugari ta gai askori buruz idatzi dau: aberkoiak, errikerari buruzkoak, eritxi-emoteak, ipuiñak, gertakizunak, eztabaidak, gramatika-gaiak, poesiari buruzko eritxi-emoteak eta abar. Itzulpenak egin izan dauskuz.

Idazteaz gaiñ, ba-ditu beste zaletasun batzuk: abeslari da, txistua jotzen dau, eta pillarmonikea, asti-uneetan, berak diñoskunez, baserriko bakartadean gogo nasaitu ta giotzeko. Oso elizkoi, abadeari lagundu oi dautso elizkizunetan, bai kantuak zuzentzen eta bai irakurgaiak egiten.

## OLERKARI

Aurre-Apr aiz jaiotzaz dogu olerkari. Berak idazten daust: «Txiki-txikitandik nabaitzen neban biotz-eragin edo sentikizun olerkoa neure barrenean; eta Lauaxeta'ren *Arrats-beran* irakurri izan nebanean, «oneixek, neurtitz oneixek daukie niretzat oraiñarte irakurri izan ditudanak ez daben gogo-zirkingarria» esan neban». Eta ler-egin eutson barruan eban olermenak. Guda-oiñean eginda, «Euzkadi» egunerokoan argitaratu ebazan bere lenengo olerkiak.

Arrezkero, baitegian asita, samur ta bizi azaldu izan dau, olerkietan, bere izakera, bere nortasuna, bere barru-minberearen egon-eziña. Lirakoia dogu, eta olerki-liburu bi edo iru atontzeko lain poesi ba-ditu argitara emonen eta argitara emon bakoan ar-tean.

Uritik urrun bizi ez dala be, oiñez ordu erdiko bi-dea dago Gernika'tik, baso-basoan bizi da: landa eze, zugazti eder, latsen eresi bigun eta berein erata-ko txori-txorrotxio gozoz inguratutako eskualde zo-ragarrian, urietako iskanbilletatik urrundua, gogo baketsuaren poz-eztitan.

Au dala-ta, maite-maite dau izadia, bere olerkien etorri ta gotargi-emoille bait dau, Lizardi'k legez.

Eder izaten jako paper-txatal bat eta arkatz-kon-do bat aldean erabiltea, lan-bitarteko gogoeta leun-biziak dakartsoezan uzta joriak ez galtzearren.

Askotan idatzi izan ditu lanerako tresnen kirte-nean olerki txatalak, gero asti-aldietan osotu ta biri-bilduak.

Onela naiz arela, Aurre-Apr aiz'ek bere asti-or-duetan eta lanean ekiñik, poesi ederrik idatzi dausku.

«Ederrik» diñot eta olan da; aren lumatik urten-dako biotz-zauskadak ez ditugu auntzaren gaberdiko eztulak, adimen biziz gaitu ta biotz beroz indartuak baiño.

Izan be, poesigintzan gure aalmen edo indar bik esku artzen dabe, asmamenak eta naimenak.

Buruz pentsalari dogu Aurre-Apr aiz eta biotzez gartsua; naitaezko gaitasun bi olerkari guren izateko.

Lanari diarduala be, oldozkor dabilkigu, eta biotz bero; orrela sortuak dauz ainbat eta ainbat poesi eder. Aiengiz'tik ez urrin bizi izan zan, eta lugin, nekazari, baserritar Muxika'ko Urretxindor-rak be, Enbeita'tar Kepa'k konta-ezin ala bertso bikain laga euskuzana.

Balendin'ek asko idatzi dau, bai olerkiz eta bai prosaz.

Gertu daukaz pare bat bertso-liburu argitaratze-ko. Ez dauko dirurik ortarako.

Urte batzuk dirala, ortarako diru-billa ain zuzen Venezuela'ra jo euskun, urtebete ta geiago bertan egiñik; baiña zoriak ez eutson irribarri gozorik era-kutsi, eta aberri-miñak joa —diruz urri?— etxera biur-tu zan. Esan dogu: minbera da izatez, eta etxetik urrin minberago biurto oi da euskalduna.

Etxera-nai ori argi be argi adierazo euskun oler-kariak, Venezuela'n egoala osotu ta 1970'garren ur-tean «Karmel» aldizkarian agertu eban neurtitz-sail gartsuan, «Ba-noa» tituluz bateatu ebanean. Emen dozu osorik.

*Ba-noa.  
Au poza!  
Abeslari daukat biotza.*

*Agur, atzerri legorra,  
atsekabeen zelai ankerra.*

*Ba-noa.  
Au-poz!  
Zaparteri daukat biotza.*

*Ba-noa.  
Aberri,  
Euskalerra,  
Aiengiz'ko baso-artera,  
ETXERA!*

*Begira daukadaz etxeoak  
—neure kutun laztanak—  
adiskide, lagun eta auzoak.*

*Ba-noa.  
Au poza!  
Agur, betiko, atzerri itza.*

*Baitegitik urtetako neban  
baizen aundia da nire poza.  
Laster ibituko nire errimin,  
eta igesi biotzeko samin.*

*Neutarren artean  
—geure oillo-lurrean—  
izan gura dot, ba,  
poz eta atsekabe,  
goibel eta pozkida,  
Urtzi'ren oldea  
une guztietan  
ustetsu eginda.*

*Ba-noa.  
Sekula olako pozkidarik!  
Zain daukat, ba, zazuptu neban  
zoruna, maitasunez beterik.*

AITA ONAINDIA

# UZTAPIDE BERTSOLARIA

Aurten, urtearen lenengo illean, Iñaki Azpiazu abade agurgarriari, «don Iñaki»ri, Azpeiti bere erriak eskiñi eutsan omenaldian, an zan «Basarri», meza bertsoan eskintzen.

Eleizatik urten eta aurreko egunean, 47 urtedun il zan azpeitiar abade gazte baten eriotza gendun aotan: «Txapel» abadea, izen bereko bertsolariaren semea. Orduntxe esan eustan «Basarri»: Oso kezkatuta nago. «Uztapide» adiskidea bart Donosti'ko Gaixo-Egoitzara (Residentzira) eroan eben, eztakit oraingotan azkenez izango ez ete dan.

«Uztapide» baserri deitura zan, etxekoa; odelekua Olaizola; bataio ta zibillez, Manuel.

Endoia'ko eleiz irukoitzaren aurrez-aurre dago Uztapide baserria, bertsolariaren jaiotetxea.

Toki polita da Endoia. Itziar'tik aurrera, Andutz mendiaren gibelatik doan bidean joan, Lastur'era-ko bidea eskumatara laga ta aurrera jarraituz, gaiñetxo baten, bei-aldean Arrua'ko zementu lan-tegiko kei zuriak ikusten dirala. Erriz Zetzona.

Uztapide berberak onela zeaztuten dau toki ori bere «Lengo egunak gogoan» liburuan: «Itxas bista ederra da; Udarako toki ona. Gain baten dago. Atari-jira ederra du; patxara ederrekua. Kamioñoa ere ba du; eleiza ere bai; atarian

eskola emateko tokia ere bai; apaiz etxea ere bai; telefonoa ere bai, Uztapide etxe bertan».

Mundu aldi ederra eban amuna ezagutu eban berak bertan. Onelako berbak ipinten zitun amonaren aotan: «Ogei seme-alaba azi ditugu. Nik amabi ta erraiñak zortzi. Eta etxe onetatik ez da atera nere gizonaren gorputza besterik irurogei urte oneitan». Bizi egoki ta osasun oneko baserria?

Alaz eta baserriko legeak ba dauka muga lako bat. Ainbeste anaik ogia latz. Eta etxetik urten bear.

Ikazgiñan, baso-lanetan, ardi-zain. Morroi eta bere konturako. Zela ala bizimodua atara bear. Alaxe Manuel'ek be. Bertsoak lagungarri. Beti apal eta itzal. Gerrogo jakiña, bularreko miña ete zan bere izatean, umorezko eta zirikalar bertsoan be gizon a ain apal eta itun agertzera beartuten ebana?

Aldi baten iñoiz bertsozik kantatu izan ba zan, erri txiki nai andi, auzo nai uri, «Basarri» ta «Uztapide» izango ziran geienetan kantarikide, besteen laguntasunik ukatu barik. Sekula bereari garratzirik emon barik.

1962 urtean, Donosti'ko bertsolari txapelketan, epai-maiko izan ginanok, kezkatu lez egin ginan Uztapide ta Basarri puntu bardinetan oartzen genduzalako.

Uste dot bildurtu be egin giñala. Baiña eritxiak agertu ta Uztapide geratu zan txapeldun.

Ala autetsi.

Nire ustez, lenena mindu zana, nai eta txapeldun geratzea beretzat amesgarri izan, Uztapide berbera zala esango neuke.

Bere liburuan agertzen dau: «Juradua etorri zanean, lenbiziko Uztapide eta bigarren Basarri, Jaungoikoak ala naiko zuan da nik ezin ezer egin. Azkenekoa eman ba zidaten ere, etzegoen ezer egiterik».

Urteak dira gaixotu zala. Txori kantaria mutututa gelditu. Gai-xoaren minez eta naigabez. Amar urte dira berak esan ebala: «Zarrak ziranak joan ziran mundu onetatik; eta gazteak ginanok ere zartu gera eta larri gabiltz».

Bertsozik ezin kantatu ta liburuetan laga nai izan bere asken oroitzak:

Ixilik ezin egoa eta nolabait bear det mintza...  
Euskalerrari egiten diot liburu batea eskintza.

Besterik ezean, «ZER» onetan bizkaitarron gomuta eskiñi nai izan dausat. Beste batzuk zeaztuko dabe bere bizitza. Nik ez dot sekula aztuko ain bertsolari andi eta apalaren irudi ta izaterik. Beretzat gaurko nire otoitza.

Augustin ZUBIKARAI

# IPUIN SARITUAK

*Euskaldunak ipuin-bidean aurrerapen aundia egin dogula uste dot eta aspaldion ugaritu diran ipuin-sariketak orretarako bide izan dira zalantza barik.*

*Ipuñok aztertzean zazpi epai-gai kontuan artu dira: Idazkerea edo ortografia (au geienetan naikoa egokia izan da, naizta oraindiño zalantza batzuk argitu barik agertu), Joskera jatorra (au be ipuin guztietan izan da egokia, utsik ia bat be agiri ez dala), iztegia (guztiak dauke egokia ta garbia) asmamena (ipuiñak idazteko irudimena, asmamena bear da, eta au be ugari agertu da, baiña, batez be asmamena maillan, bide luzea dago egiteko) aria eroatea (idazleak aria ondo eroan bear dau irakurlea gogaitu ez daiten eta alperrik aritik urtetea beti baztertu. Onetan jokabidea naikoa egokia da geienetan), euskaltasuna be kontuan artu dogu, naiz-ta ipuin batzuk onetan beste bide batetik joan, eta azkenen trebetasuna (gaur ipuinlariak ludi osoan aurrerapen aundiak egin dabez, tokia, aldia, idazlea agertzea, edeslaria eta olakoak bideratzen. Arlo onetan gaur benetako bitxikeriak egiten dira. Onetan gure ipuiñak naikoa barritasun bakoak dira. Irudiai begitu ezker, lenengo saria daroan jantzi dau ondo lan guztia irudi eragin bat bide dala, ba-dira beste batzuk be bide au artu dabenak.*

*Ipuin aderrak dira etorri diranik geienak eta muga lez 170 puntu ipiñita, gai bakoitxeko 10, lenengo sariak 159 lortu eta azkenen geratu danak 117. Ikusten dan lez, ipuin onak etorri dira, ondo idatziak.*

\* \* \*

## AURKEZTUAK

*Aurkeztu diran 24 ipuiñen artean askotarikoak dagoz: Erri-jakintzakoak, irakasbidekoak; gaurko arazoak, jaito-bako umeak iltea esaterako, agertzen dabezenak; izadi-giroz jantziak, kondaira-bidekoak...*

*Gauza bitxi lez esan geinke, ipuin bat etorri dala, eta polita au be, bertsoz egiña.*

\* \* \*

## IDAZLEAK

*Pozik agertuko gendukez sari barik geratu diran idazleen izenak, baiña euren baimen barik ez gara ausartzen. Begoz ba isilpean.*

*Baiña zerbait esan geinke: Batzuk ezagunak dira, baiña geienak elerti-arloan barriak. Eta onek poz aundia emoten dausku. Or argi agertzen da gure elertia aurrera doala.*

*Batzuk andereiñoak dira, beste batzuk gazte ikasleak (aurten igaz baiño gitxiago) beste batzuk saridun elduak.*

\* \* \*

## NONDIK ETORRIAK

*Bizkaia ta Gipuzkoa izan dira sariketa onetan euren trebetasuna agertu daben eskualdeak: Sei ipuin giputzak eta gipuzkoeraz idatziak eta eurretatik bat bigarren saria atera dauana. Beste iru gipuzkoan bizi diran baizkaitarrak eta bizkaieraz idatziak dira eta onein artekoa da lenengo saria atera dauana.*

*Eta Biskai - barruan ba-dira Arratia'tik etorritako lan politik, Ondarroa'tik, Zornotza'tik, Bilbo'tik eta Gernika-aldeetik etorriak.*

\* \* \*

## GIRO POZGARRIA

*Ipuin oneik irakurteak eta emen euskerearen aurrerapena ikusteak poz aundia emoten dau benetan. Eta txarrena edo samintasun pizka bat emoten dauana, sariketearen arauak arau dirala jaikiñik, guztiak edo geienak beintzat, saritu barik itzi-bearra.*

*Zorionak guztioi eta jarraitu aurrera gogotxatu barik.*

OLAZAR'tar MARTIN'ek

# ZERUETAKO

## OWNI

(2n. saria)

Mikel eta Aintzane alkarren lagun aundiak ziran. Etxe baten, esker-eskui bizi ziralako edo baita biak ikastetxe batera juaten ziralako ere. Dena-dela, sarri ibiltzen ziran biak alkarrekin. Izan ere, biak zeuzkaten zaletasun berdintsuak, ots, bizi txinbeletazale zirala alegia. Ori zala-ta, garaia zetorrenean, bide-batez, etxerako kamamilla biltzea ere oso atsegin izaten zitzairen.

Ikustekoa zan, batak eta besteak, kutxatxo laukietan, dotore jarrita zeukaten, txinbeleta bilduma. Margo danetatik eta neurri guztietatik zituzten. Eta, nolako atsegin eta arrotasun pixkarekin ere, erakusten zituztela, kanpoko norbait euren etxera juaten zanian!

Ikastolan jai zuten egunetan, eta egoaldia ona, euren gurasoeri aditzen eman-da gero, an aterako ziran biak mendi aldera, erritik urbil zegoen baso batera. Kutxatxo bat, txinbeletak jasotzeko, zorro bat kamamillenzako, eta, jakiña, txinbeletak atxikitzeko bearrezko dan sarea aaztu gabe.

Euren errizkak Mendizabal zuan izena. Ez zuten asko ibilli bearrik, baso-basoan arkitzeko, bañan egun batez, oi baño aurre-rago eta barrurago sartu ziran, mendian zear. Izan ere, ibilliago eta txinbeleta politagoak ikusten zituzten eta kamamilla geiago arkitzen.

Pozaren pozez, ez ziran oartu, noraño jua ziranik ere. Eta ari ziran, txinbeleta zoragarriz kutxatxoak betetzen, baita ere kamamilla mordoxka zorrotxoetan biltzen.

Noizik bein, basoko txoriñuen abestiak entzunaz, geldi aldi batzuek ere egiten zituzten euren lanean. Une auetako baten, putre zaar aundi bat urbildu zitzairen. Aintzane bildurtu ere egin zan; Mikel ez. Onak arrika egin zion putreari eta bai alde egin-arazi ere andik.

Eta 'zafla' txinbeletari, eta 'kaxka' kamamillari ari zirala, putrearen egalotsa baño zarata edo durrundara aindiagoa somatu zuten aidean. Biak izutu ziran orduan, putre-talde aundiren bat edo ote

zan... Izan ere, zarata geruago ta urbillago eta aundiago biurtzen ari zan. Ikusi ordea ez zuten deus ikusten. Trumoia ere ezin ziteken ba izan! Nola zitekean?, ain ifar aize eder eta eguzki argi arekin batean?

Ingurura begira eta begira, alako baten, laño zurrunbillo antzeko bat ikusi zuten urrutira, oso argitua. Ego-aldetik eurak zeuden aldera zetorren. Alderago eta azkar-rago. Orduan, geiago izutu bearrian, arritu besterik ez ziran egiñ, ez bai zuten orrelako laiñorik, aiñ argitsurik, zeruetan, beiñ ere ikusi, batez ere durrundara arekin batean.

Kamamilla eta txinbeleta biltzeari utzi eta biak, arri ta zur, lañoari begira begira jarri ziran.

Laño zurrunbilloak, bere azkartasuna, pixkaka pixkaka, gelditu ondoren, neska-mutillen gañeraño eldu eta antxe bertan gelditu zitzairen. Bereala lañoaren loditasuna zabaltzen eta saretzen asi zan.

Zer azalduko bertan eta... bapatean, bi izaki eder, odeiaren erdian: bi neska-mutillen antza ba-



zuten bai, bañan, mundu ontako beste edozein baño, neurri gabe ederragoak biak. Ortaz gañera, argi diztiratsu batez, inguratuak arkitzen ziran.

Mikel eta Aintzane txorabiatuta gelditu ziran izaki aieri begira.

Laño artean ikusten zituzten gazte eder aiek batere aztuntasungabeak ziruditen. Ala izan ere. Emeki-emeki jetxi ziran euren aurreko-aldean, eta txoririk ariñenak baño leunago kokatu ziran lur-azalean.

Bereala izketan asi ziran, eta euskeraz gañera!

—Zer ari zerate emen, etxetik ain urruti?

—Zera, txinbeleta politak eta kamamilla biltzen —erantzun zien Aintzane'k.

—Lagunak zerate noski?

—Baai. —Mikel'ek.

—Zu, Aintzane izango zera? —galde berriz aietako batek neskatxari.

—Baai!, —Eta zu Mikel? —besteak mutikuari.

—Baai!, eta zuek nola dakiskituzte gure izenak?

—Guk asko dakigu.

—Eta nundik zatozte?, galde berriz ere Mikel'ek, izutu gabe.

—Garbi esan-da, gu ez gera inñundik etorrik-erantzun zion aietako batek. Zuek leunago gu ikusi ez izan arren, gu ementxe gubiltza beti zuen inguruan, naiz eta aldi berean, izadi guztian zear ibilltze-ko almena ere euki. Gu biok zuen aingeru-zaintzalleak gera. Zuek ez gaituzte gu ikusten, guk, gerenez, soñnik ez daukagulako, bañan gaur Deun Mikel Nagusiari baimena eskatu diogu, zueri gorputz itxuran agertu bat egiteko, eta eman egin digu. Jakiña! Jainkoaren baietza bear du arek ere, baimen au emateko. Oso bakan ardiatsten ditu Jainkoak orrelako eskubideak. Izan ere, gizakiak sinismen bidetik ibilltzea nai du Berak. Ori dala-ta, alatz eta mirariak oso

bakan egiten ditu. Zerbait bereizia bear izaten da, gu onela gizoneri agertzeko.

Orduan, Mikel'ek itza artu eta aingeruari galde:

—Eta gaur, zer gertatzen da be-reizirik, zuek onela azaltzeko?

—Zera, zuek ba-dakizute Mikel Deuna Euskal-erriko Zaindaria dala?...

—Bai!

—Zeruko gure taldearen buru ere bera degu, eta aspaldi ontan, asarre xamar ikusten degu, zuen erri ontan gertatzen ari diran gauzak dirala-ta. Mikel'ek:

—Illketak eta orrela, esan nai dezu? Guk ere ez ditugu maite orrelako gertariak baña...

—Bai, ba-dakigu zuek ez dituzutela onartzen gaiztakeri oiek. Orretxengatik, zintzoak zeratela-ko, agertu gera zuengana.

—Entzun orain, zuek errian zabaldu dezazuten, Mikel Doneak eman digun albistea, ots:

Euskotar askok poz gutxi ematen diotela, azken aldi auetan.

Garai baten, Euskotarrak, euren buruak eta Erria gaizkatu be- rrez bakarrik, egiten zituztela burrukak eta gudaketak; bañan gaur egun, eurotatik asko dirala borroka-sortzalle eta erailtzalle biurtuak.

Pake-gogoa bastartzen dijuaze- la.

Orregatik, Mikel Doneak Jainkoari Euskal-erriaren berri eman bear dionean, lotsatu ere egiten omen da, berak ainbeste aldiz go-raipatu izan duan Erriari buruz, zer esan asmatu ezin izaten duala-ko sarri. Eskerrak, bai, ba-dirala oraindik, Erria jasotzen, zuzenta- sun bidetik ari diranak; euren kris- tau jatortasunari eusten diotenak, eta Jainkoak emandako euskera erabilli eta zaitzen dutenak ere. Bañan, zoritxarrez, gero eta gut- xiago.

Esan beraz al dezuten guztieri, jokabide gaiztoak utzi ditzatela, bestela Euskal-Erriarenak laster

egingo duala. Ganera, surmurrak dira gure artean, Mikel Doneak or-konpon esango ote dion zuen erria zaintzeari, beste eginkizunen bat Jaunari eskatuaz.

Zuek, Mikel eta Aintzane, ja- rraitu orain arte bezela, zintzoak izaten; ez egin ezergatik kalterik inñori, ez eta zuen etsaieri ere.

Munduko ondasun guztiak irix- tea bera, ezin daiteke lortu, oker- bidezko odol-ixurketak egiñaz.

Gizarteko arazoak zuzentzeko, adimena eta itza eman dizkio Jainkoak gizonari. Oiek dira giza- kiari dagozkion izkilluak.

Orra beraz, garbi esan, Eusko- tarrak eta beste munduko erri guztiak ere, nola jokatu bear du- ten».

Onenbestez, gure agertze-bai- mena eta denpora ere amaitu zaiz- kigu eta ba-goaz.

Laño-zurrunbilloa agertu zan berriz ere, eta bi aingeruak ingura- tu ondoren, emeki-emeki goora igo, etorri zan bidetik aldendu, eta begien aurretik galdu zan.

Mikel eta Aintzane, azkar eta pozez beterik, aintxintxikatu ziran etxeruntz, eta bai laster agertu ere, etxe ta auzoetan, mendian ikusi eta entzun zuten guztia. Erriko apaiz eta agintarieri ere, adierazi zieten dana, ezer utzi gabe.

Mikel eta Aintzane, lendik ere neska-mutill jatorrak ziran arren, danen eredu biurtu ziran, euren zintzotasunagatik.

Bañan, ez ori bakarrik: eme- zortzi urte bete zituztenian, biak mixiolari izateko erabakia artu zu- ten, munduko erriari zuzentasun eta zoriontasun bidea erakusteko, erarik egokiena zala-ta.

Antxe dabiltza orain, urrutiko lurraldeetan, amakiñ bat beartsuri on asko egiten, eta daneri gizale- gea erakuzten.

Izen-ordea: «ARRATE»  
Izena: BERGARETXE'  
tar JON JOSEBA

# SABINTXU ETA AMA EUZKADI

(1.º saria)  
Egiazko ipuiña

Munduan beste asko lez, andra alargun bat bizi zan —Euzkadi izena.

Emakume oso ona zan, baiña txiro-pobrea.

Zazpi seme-alaba zituan, lau mutil eta iru neska. Zazpiak bat ziran.

Basoko txabola batean bizi ziran. Etxe oberik ez euken.

Egun batean, semeak andi egin ziranean, iru semek amari esan eutsoen:

«Ama, guk zu asko maite zaitugu, baiña gu andiak gara, eta emen ez daukagu lanik. Erbestera joan bearrean gagoz, tamalez, lan billa.»

Ama triste-goibel jarri zan, baiña semeek arrazoia eukela ezagutu, eta esan eutsen:


«Semetxoak, an atzerrian, zuen ama ez aaztu.»

Eta iru semeak joan ziran erbestera, Kastilla aldera seme oneik nortzuk ziran?

\* \* \*

Beste egun batean beste alaba bik be, amari esan eutsoen:

«Amatxo, guk zu asko maite zaitugu, baiña emen ez daukagu bizi-biderik, etxetik kanpora joan bearrean aurkitzen gara.»



Eta amak negarrez esan eutsen:

«Bai, alabatxoak, ni oso txiro-pobrea naz. Emen ezin zarie bizi, eta zoaze erbestera lan egiñaz zuen eguneroko ogia garbi irabaztera. Jaungoikoak lagunduko deutsue.»

Eta alaba biak amari mosu andi, luze bat emon, eta etxetik joan ziran.

Nora? Frantzia aldera. Alaba oneik nortzuk ziran?

\* \* \*

Eta amaren etxean seme bat eta alaba bat bakarrik gelditu ziran.

Bikoitzak ziran, egun berean jaiokak. Mutillak Naparroa eta neskak. Benaparroa izena. Amaren etxean txiro, baiña pozik bizi ziran.

Baiña egun batean Euzkadi alargunaren etxera gizon gaizto bat etorri zan. Perrando izena. Aberatsa, baiña deabru biotza. Gizon gaizto onek, indarka, amari semea eta alabea kendu, eta katigu-esklabo saldu ebazan: bata kastilla aldean, eta bestea Frantzian.

Ama gaixoa etxean bakar-bakarrik gelditu zan, iñoren laguntza barik, negarrez. Baiña aren negarrak ez ebazan iñok entzuten.

\* \* \*

Urteak joan eta urteak etorri. Neguan edurrak eta udan eguzkiak.

Amak ez eban jakin seme-alaben barririk. Biziko ete ziran? Il ete ziran? Ama etxean negarrez bakarrik, eta seme-alabak nondik?

\* \* \*

Egun batean, egun zoragarria!!! atzerrira joan zan seme batek —Sabin izena— bazkal ondoan zugaizpean lo-txikia egiten egoela, txori bat entzun eban zugaitz puntan kantari:

«Ene aberri laztana,  
jausi zara erbestepean.  
Obea eriotza da.»

Sabin lo-zorrotik itxartu zan, eta txoriari:

«Nongoa zara txori polit, maite ori? Nondik zatoz? Nok bialdu zaitu?

Nok irakatsi deutsu gure amak abesten eban kantu eder ori?»...

Eta txoriak irakatsita, etxerako bidea artu eban Sabineke. Ama Euzkadi'ren etxera.

Txoria egaz, eta Sabintxo oiñez, basauntzak baiño bizkorrago, aizea baiño ariñago, ibilli eta ibilli, amaren etxera eldu zan.

\* \* \*

Tan! tan! etxeko atea jo eban pozik, biotza barruan saltoka!!!

Baiña bere amaren orde bestea emakume petral, zatar batek zabaldu eutsan atea. Aberatsa zan emakumea, baiña artoa:

«Nor zara zu? Nondik zatoz? Etxe onetan zer gura dozu?»

«Au gure etxea da, eta gure amaren billa nator», erantzun eutsan Sabineke.

«Au ez da zuen etxea. Zuen ama ez da emen bizi», erantzun eutsan emakume artoak, eta...

«Asturias, patria querida  
Asturias de mis amores...»  
kantatzen asi zan.

Sabineke esan eutsan:

«Gure amak zuk baiño abots gozoagoa eukan. Gure amak zuk baiño askoz obeto abesten eban.»

Orduan emakume artoak Sabin'eri esan eutsan:

«Oa emendik, mutiko lotsabako ori! Ez az etxe onetan sekulan sartuko!»

Eta atea giltzaz itxi eban.

\* \* \*

Sabin'ek kanpoan lo egin eban. Gau ederra zan. Izarrak zeruan Sabin'eri kiñuka, eta Sabin izarrak barruko penak kontatzen.

Goizean goizetik leengo txoria teillatu gaiñean asi zan kantari:

«Ene aberri laztana,  
jausi zara erbestepean...»

Eta etxe barrutik txoriari emakume batek erantzun eutsan:

«Obea eriotza da.»

Nok abesten eban ikusteko, igon xan Sabin leiora, eta zer ikusi?

Emakume bat, katez lotuta, txiro-pobre jantzita, baiña garbia eta ederra: eguzkia bezain argia, Aralar'ko edurra bezain garbia, eta illargi betea bezain gozo-atsegiña.

«Ene amatxo, nok lotu zaitu.  
Kate oneikaz nok estutu zaitu?»

Eta ama Euzkadi'k erantzun:

«Ene seme, kate oneik ez dira mailluz eta zizelez askatzen, mosuka eta maitez baiño». Eta Sabineke bere Ama Euzkadi'ri mosu andi bat emon, eta kateak askatu eutsazan.

Orduan Sabin teillatu gaiñera igon, eta irrintzi au lau aizetara zabaldu eban: GORA EUZKADI ASKATUTA!!!

Eta Euzkadiko txori guztiak ori entzunda, kantakantari asi ziran...

GOIKOETXEA'tar IÑAKI  
«GOSTARKI»

# NORBERA JATEN DAUALA...

## (3n. saria)

Txakur bat eukan saltzeko, Patxi Guzur'ek, eta salneurria baiño askozaz diru geiago artzeko asmua ebillanezkero, iñun direan obariak zabaltzen ebillan, guzur eta ebar, erri ta erbeste, iñun ez lan-goia zala bere txakurra, inguruetan be ez dan lako jatorri onekoa zala, ez dakit zer ete ba-dakit zer egiten ekiala ta abar eta abar. Luzaro ekin eutsan onetan, dirudun merkatarien bat eldu eitekiolangoan, eta eroslerik agertzen ez ekionee-kero, txakur ori il edo etxetik zelan aienatu ez ekiala ebillan, arez ganera, beste txakur bi be ba-eukazan-eta, irurak bazkatzeko janari asko bear zan, ba; eta erdigosez edo, ase larregirik barik, beintzat, izan oi ziran, txakurrok.

Egunero ekiten eutsan, emazteak, bat itxita kendu egizala, txakurrak, esaten eta sarritan aserretu bere egiten ziran, abere ontzainok zireala-ta.

Bata baiño bestea politagoak eta ederragoak ziran, izan bere, txakurrok: *Txotxo*, *Txuri* ta *Lirain*. Azkenengo au emea zan eta auxe ekioen gogokoen senar-emazte bieri: eta au, *Liraintxu*, ezegaitik bere ez euken emoteko. Ez orixe, gero!

Bat itxi ta beste biak iltekotan be urten eban, Patxi Guzur'ek, bein, etxetik, basorantz, atxurra sorbaldan artuta, baiña atxurraren doruaz abere otzan areik buruan joteko unea eldu izan ekionean, eperdi-ganean jesarri eta tamaltasunez begiratu eutsen txakur biak ugazabari arpegira, bata baiño besteak begirakune samurragoakaz, «guk zaitugun bestean maite izan eta il egingo gozuz, ba, geiagoko barik», esatea lez, eta biozpera zanezkero, ez eban izan adorerik bere txakurrak erailteko.

«Ez. Etzaudaze ilgo, ezegaitik bere —esan eutsen— etzaudaze ilgo» eta etxera biurtu zan bere txakurrak, bizia parkatu eutsela-ta, zapartaka pozez inguruan ebazala.

Ettxera eldu izan zanean zer jazo izan ekion azaldu eutsan emezteari eta iñun direan xerak egin eutsezan, biak-bietara, euren txakurrai, eta, diñotso, emazteak: «Patxi, ondo egin izan dok txakurrok ez iltea. Merkatarari on bat agertu ba'ledi agertu, saldu bai egingo gendukezak, baiña il ez, gero. Ondo izan daitekezan norbaiti saldu edo emon bai, baiña il ez, Onein muxurtxu politik ikusita nor errukitu ez! Bat itxita beste biak kentzeko be sarri esan izan dauat, baiña etxoat gura era txarrean kentzerik. Olangoxerik ez!».

Errukia emon yaustena, ba, Malen, atxurraz buruan joteko gertu nazanean. Ain tamalgarri begiratu bere begiratu izan yaustena, «zer dalata il bear gozuz, ba», ba-liñoen.

—Bai, Patxi. Batzuetan geitxuago ta beste batzuetan gitxitxuago, zeozer izango yoago onei jaten emoteko eta dagozala etxean, merkatarari onik agertu ez ba-dadi, beintzat. Ganerq, erdi gosez dabilan txakurrak zaurragoak izan oi dozak larregikeri ta aukeran direanak baiño. Bardin jazoten yakek gizonai be, Patxi. Larregi jan ba-yagiek, sortu, lortu, dekortu adore bakotu eta etzanda egoteko gogoa baiño ez yuek izaten. Orregaitik esan oi da: «Gosea bera baiño be zuurragoa dok ori».

—Bai, Malen, gizon lodiak alpertrak izan oi dozana, geienetan. Ba-dakiña zelangoa zoana a, Mugarra'ko Peru-gizen be: Alper utsa. A, beste Albiztur'go gizon argala barriz, berakatz-atala bera

baiño be zintzoagoa ta edonori on egiteko beti gertu egoan langille nekegaitza.

«I, Patxi, sarri amurrarazi be izan aut, txakurrok direalata, baiña gaurgero ez dauat ezer txarrik esango. Buruan joteko eukeazala egin izan dauekala esan daustakan begirakuneak guztiz eragin yaustak eta errukia yamosteek, orain, ba, Leen bere esan dauadanez, dagozala, ba, etxean, erosle taiuzkorik el ez ba-dadi». Bai senarrak eta bai emazteak, leen baiño txeratsuago artzen ebezan txakurrak eta, oneik, pozik eta zapartari ebizan, etxe-inguruan, naiz-ta sarritan erdi gosez izan.

«Neure senar maite ori —esan eutsan, Malen'ek, tamalkiro, bere Patxi'ri—. Neure senar maite ori; umerik bere Jainkoak emon ez dauzkunezkero, txakurtxuok edo zeozer bear yoagu, ba, geure bizikerea apur bat pozteko. Biok bakarrik, bata besteari begira, beti, bizimodu goibela yoagu, ba, Patxi. Txakurtxu oneik laguntasun andia yagizkuek geure bakartasuna arintzeko eta mesede andia be ba-yagizkuek etxea zaintzeko ta abar... Baiña, zaartu gaitezanean, zer? Sarritan izaten yoat seintxuen bat nunbaitetik ekarri ta geuganatzeko asmua be, baiña... Zer deritxak, Patxi?».

—Seintxuen bat ekartekotan, nik neuk ez neieukena ekarko nundikoa ez zelango gurasoen ume dan ez yakiagunik. Nik, neuk, geureganduko neieukena, gurasok il dakiozana, edo senideen artekoa edo... Gurasoen pekatuen errurik etxaukena umeek baiña, bildur izatekoa don. «Ardien erruak bildotsak ordaidu» yiñona esakera zaarrak.

—Bai, gizona, zuzen ago. Nun-goia ez zelango daiten ez dakigunak zelangoak urten dagikean be



ez dok yakiten-eta... Axe esan eta, «*Liraintxu*, ator ona» esanik, iñun direan xerak egin eutsazan, txakur emetxu politari.

Emaztea etxeko eginbearretan itxi eta gizona bere lanetara alde izan zan beste txakur biak, *Txotxo* ta *Txuri*, jostari ldamenean ebazala.

Txakurrok gogoko ekioezanarren, etxaken kentzen, burutik, merkatari onik ba-letorkioe saltzeko asmua. Eta, Patxi'k, Elizalde'ko edari-etxean edo nai-nozko gizarte-batzarretan batu eitenean beti aitatzen zituan bere txakurrak eta, beti lez, iñun direan obariak esan, guztieri, arein alde. Alango baten, adi-adi jarri ekion zeozetan errira eldu izan zan erbestetar gizon apain bat eta alako txakur onak baldin ba-ziran, berak erosi legikeola bat, esan eutsan, txakur on baten bearrizana ba-ebela etxea jagoteko-ta.

«Etxea zaintzeko bata zein bes-tea dozuz ezin obak, gure txakurrak, gizona» —esan eutsan, Patxi Guzur'ek.

—Enok guzurtauko, gero, gizona —esan eutsan erbestearrak— begi bietara adi-adi begiratzen autsala.

—Ez, olangorik ez, arean bere, Nasai eroan txakurra, etxatsu damutuko-ta.

Egin eben, ba, salerosketea ta urrengo igandean Patxi'k, berak, txakurra eroatekotan banandu ziran, alkar besarkatu-ta.

Pozik biurtu izan zan, etxera, Patxi, eta alaitasunez esan eutsan txakurraren sal-eroskotearen barri emazteari.

*Txotxo* ala *Txuri*, zein txakur eroan aukeratzea neke izan ekioen, baiña emaztearen esana egiñez, *Txuri* eroatea erabagi eben, bere ta emaztearen mingostasun aundiz.

«Dirurik bear izan ez ba-gendua, saldu bere ez genduanan egingo txakur eder au» —esan eban Patxi'k.

«Ez, orixe, gero» —emazteak.

—Eroan bere ez neieukena egingo, baiña diru apur baten bearrizana bere ba-yonagu eta, ganera, emondako berbea ezin dagiket baztertu, ni neu, beti izan non berbako gizona ba-ta. Niri *Guzur* ezizena ezarri eustenak ez nabe ezagutzen arean.

—Iri ori izena jarri euenak, eurak, zelangoak ete-dozak, kirten adiñonak. Eta ixil-une baten ondoren: Bai, Patxi, eroan egiok, txakurra, sal-erosketetako berbak jagon bearrekoak dozak-eta.

Urrengo igandean ba-yoian, Patxi, bere txakurra artuta, Ibaialde'ra, angoa zan, ba, eroslea. Esandako lekuan batu izan ziran eta alkar agurtu ta bata besteari itz batzuk zuzendu autsezanean, ondo begiratu eutsan, txakurrari, erosleak, eta eder eretxi eutsan. Esandako obari guztiak ete-zituan itaundu eutsanean, «esandakoak eta geiago bere bai, gizona —erantzun autsan, Patxi'k—. Au, txakur au, zuurra be zuurra yak etxea jagoteko. Eskuarterako barriz, esanekoa ta otzana. Lo nasai egin einke, lapur-bildur bagarik, abere dotore au etxeratu dagikanean. Bai orixe! (Gizonok autuan ziardeen bitartean, ankartean isatsa sartuta egoan, txakurra, berarren iñoesanak gogoko ez ba'litxakiozan eran). Eta —jarrai eban txakur-jabeak— ilgo ba'litxatsu, barriz, onek, txakur onek, daukazkik, «tanbor biren narrua, ta / bustanaz jokia / dantzan erabilko leuke / inguru guztia».

—Bai-ta, eu, bertsolaria bere ba-az, gero!

—Apur bat, bai. Pitxartxukada bat arda edanez, ekiten yautzaguk orretan bere, lagunak alkarregaz batu gaitzanean.

Emon eutsan, ba, erosleak itundutako dirua ta pozik abiau zan, Patxi, etxerantz, diruak sakelean sartuta, eskuaz eusten eutsela.

Bide-zati bat egin ebanean, deika etorkion, atzetik, ibaialdetarra, deadarrez, iñotsola: «I, Patxi! txakur onek zer jaten yakik...?».

—Norberak jaten dauana...!

—Norbera jaten dauala...?

—Bai. Norberak jaten dauana...!

Norbera jaten dauala aditu eutsan, erosleak; larritu egin izan zan, gizona, ta aurrean artu eban, txakur gaixoa, erailteko asmoz. Txakurrak, estutasunean, kanpantorrera igon eban eta erri guztia batu izan zan, txakurra atzi (atrapau) eta erailteko. Ota ta egur-pilloa ekarri ta kanpantorreari sua emoteko egozala, erriko abadea agertu ekioen zarataka: «Zetan diarduzue, gozonak, zoratu egin zaree, ala?».

—Norbera jaten ei-dau, ta il egin bear dogu...

—Zer, il? Zelango txakurra il?

Zoaze zeuon etxeetara, buruariñok alakook, txakur ori be beste txakurren antzekoa daiteke-ta.

—Ez, ez! Eskuratu egin bear dogu, norbait jan ez dagian.

Abadea bera be, euren erritarren, antzekoa zanezkero, etzan aiko-maikoetan ibiltekoa eta maki-lakadaka asi bearra izan eban a, talde amurratu a, sakabanatuko ba-eban.

Baretu zirean, orraitio, gizonok, eta bertanbera itxi eben txakur gaixoa.

Biamon goizean, goiz, bere leengo etxean zan, *Txuri*, intziriz, ateari arraztaka.

«Ba-ator, Txuritu? Ez dok emengo besteko lekurik aurkitu, antza» —esan eutsan, Malen'ek—, eta pozarren sartu eben barrura, euren txakur maitea, senar-emazte biak. Jaten emon eta pozezko igurtziak buruan egiñik, «oa eure lagunekana» esan, eta beste txakur biak egozan tokira bialdu eben, maitekiro.

«Geuk saldu, barriro, txakurrik, iñori. —Esan eban Malen'ek—. Ez-ta, ez-ta...!».

AURRE-APRAIZ'tar  
BALENDIN  
(AGERÍ)

ESKU-IDAZKIAK

XI GORAPEN-ABESTIA

<sup>4b</sup> Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
nire arimea erropuzkeri-batzalditik  
eta indarkeriaren bazkunik atara zendualako.  
Zeure batzarrean sartu nenduzun eta ez errudun-  
izatean.

<sup>6</sup> Euren biurrikerietatik biurtzen diranentzat  
eta pekatua bertan-bere izten dabenenentzat  
itxaropena egoala jakin neban,

<sup>7</sup> dongakeria bagarik zeure biotzeko bide-zido-  
rretan dabizenentzat.  
Adoretu egingo naz erriaren mormoxetaz eta aalt-  
suen zarraparraz  
neure aurka alkartu daitezanean;

<sup>8</sup> izan be, ondo dakit jaso egingo dozuzana  
bizirik geratutako zure errikoak,  
baita zure oiñordetzako ondakiñak be;  
garbitu egingo dozuz, erru bagarik bizi daitezana.

<sup>9</sup> Zure egiaren eta biotz onaren egintzak  
arekanako zeure jokabidea argituko dabe.  
Erruki neurribageaz eta parkamen ugariaz  
zeure itzaren ezaguerara eroango dozuz.

<sup>10</sup> Zure egiaren zuzenbidearen eraz,  
zeure aintzaren batzarrean jarriko dozuz.  
Zeure maitasunagaitik egin dozu guzti au,  
zeure maitasuna goratzeko ta zabaltzeko  
zure batzarreko gizon guztien artean,  
Adan'en semeen erdian;  
gizaldi betikoai zeure miragarriak, azaltzeko,

zeure egintza amaibageak ausnartzen dodaz.  
Atzerri guztiak ezagutuko dabe zure egia,  
erri guztiak zure aintza:  
zure ezaguera ta diztira

<sup>13</sup> gizon guztien erdian isuri dozulako.  
Ez da izango bitartekorik geiago zure batzarreko gi-  
zonen artean.  
Aingeruakaz batera egongo dira zure aurrean.

<sup>14</sup> [...] Ernamin betiko bat. Ortxe aziko da «ki-  
mua»  
landaratza betikoaren ostrailarentzat  
eta bere gerizea [hur] guztiaren gaiñera zabalduko  
dau.

<sup>16</sup> Aren zusterak lezako sakonetaraiño zabaldu-  
ko dira, Eden'go ibaietaraiño [...]  
aren frutuak [uzta] ugaria izango dira [...].

<sup>17</sup> [...] Mundu guztian zabalduko da muga бага-  
rik Sheol'eraiño  
Argi-iturria iturburu betiko, amai bagako, biurtuko  
da.  
Aren garretan [gaiztakeri guztiak] ezereztuko dira.  
Gizon guztiak ondatu arte  
iruntsiten dauzan sua lez izango dira.

<sup>19</sup> Nire Alkartasunari lotuta gero  
lillurakerian galdu daitezanak  
ez dira kontutan artuak izango zuzentasunean.

<sup>20</sup> Zuk, ene Jainko orrek,  
irabaziak  
arein bide-zidorretik kanpo lortzeko agindu zeutsen,  
erdainbagea ta dongea ta [gizon] zakarra ibiltan ez  
dan tokian.

<sup>21</sup> Okertu egin ziran zure biotzeko bidetik,  
ondamendiak artuta [jausi ziran].

<sup>22</sup> Belial'en onulari lez dago arein biotza [...]  
dongakeri [bazkunean], erruan batuta.  
Ni, barriz, itsaso suminduari [bertan-beera itzitako]  
ontzian.

<sup>23</sup> Aren olatuak eta itsas-gorabeerak neure aurka  
joten eben;  
ondapen-aizeak [astintzen nenduan],  
urdurituta [nenbillen], noraezean.  
Ez zan ni nasaitzeko aizekirrik,

<sup>24</sup> eta itsas-gaiñean  
nire bideari jarraitzeko bide-zidorrik be.  
Lezeak nire larriaren oiartzuna barrizten eban.  
Eriotzako ateetaraiño eldu nintzan.

<sup>25</sup> Arresidun urian sartu  
eta, askatasuna jadetsi arte [...],  
esi garai baten barruan gordeten dana lez izan nint-  
zan.  
Zeure egiari soillik [orutzen dautsat], ene Jainkoa;

<sup>26</sup> izan be, arkaitz-gaiñean ondopea  
eta egitamua sendo, plomatuta,  
zuzentasuna lez eta osoro dendunetan  
ezarten dauana Zeu zara.  
Arri aukeratuak ezarri zenduzan etxekuntza oso  
sendorako:

<sup>27</sup> ez dautse dardakadai bildurrik  
eta aregan babesten diranai ziurtasuna emoten daut-  
se.  
Ez da areriorik aregan sartu aal izango.  
Aren ateak aterdi oso gogorrek daukez:

<sup>28</sup> zabaldu-eziñak izango dira,  
ezin ausi izango diran katez lotuta.  
Ezin sartu aal izango dira an ondatzaille-aldrak,  
euren guda-iskillo aaltsuak ekarriarren be.  
Bestetara bai: dongak gudarako darabillezan  
ezpata guztiak ondatuak izango dira.

Aldi orretan Jaungoikoaren ezpateak  
aurreratu egingo dau auzirako aukeratutako eguna,  
eta Aren seme guztiak  
dongakeria garbitzeko jagiko dira.

<sup>30</sup> Erru-seme guztiak ezereztu egingo dira.  
Ez dira aurrerantzean izango [...].  
Gizon arrigarriak bere gezi-uztaiari eragingo dautso  
eta eten egingo dau inguratzea;

<sup>31</sup> onek ez dau betiko iraungo [...].  
Ate betikoetatik guda-iskilloak urten  
eta lurreko ertz batetik bestera joango dira [...].

<sup>32</sup> [Ondapena] sen errudunarentzat.  
Zapaldua izango da [...]  
triskantzaraiño. Ez da aren ondakiñik geratuko.  
Ez dago itxaropenik aren talde ugariarentzat,

<sup>33</sup> ezta gordelekurik be aren guda-mutillentzat,  
[garaipena] Alkertasuneko Jaungoikoarena da-ta.

<sup>34</sup> Autsetan datzazanak zut-oiala jasoko dabe,  
eta arrak jandako (gizon) ilkorrak jagi egingo dira.  
Bhurriak triskatuak izango dira gudaketetan,

<sup>35</sup> eta zigor ondatzaillea zarterazoten ebenak ez  
dira gazteluan sartuko.

<sup>36</sup> Eziña [izango yake] ormatzarretik igarotea,  
baita soin-burdiña auste be.

# SABINO ARANA GAISORIK

Loiola'ko artxiboan ba-dago Jesusen lagundiko Aita Jose Iñigo'k idatzitako «EGUNARI» bat (berak ala deitzen deutso) 1858 urtean asi, eta 1891 urtean amaitzen dana...

Arana Jose Iñigo Orduña'n

aurkitzen zan Sabino Arana ango ikastetxean oso gaizki gaisotu zanean, 1881n. urtean.

Sabino Arana'ren gaisoaldiari buruz «EGUNARI» onek zer diñoen, egunez egun agertu gura

neuke, irakurleentzat interesgarri izan daitekela uste dodalako.

Jose Iñigo'k Sabino'ren abizen berbera euki arren, ez eukan Abando'ko Aranatarrekin senidetanunik, Azkoitiarra zan.

## JOSE IÑIGO ARANA'REN EGUNARIA

1881 urtea..... Garagarrilla (ala deitzen deutso «Junio» illari) .....

16. Osteguna. Eguraldi ona. Corpus Cristi. Ibildeuna Orduña'ko kaleetan zear. edergaillu, musika eta ziripletakin (cohetes). Ikasleak taldeka uriko enparantzan... Sabino Arana'ri eleizakoak emoten deutsoez, bere gaisoaldia —katarrozko sukarra— (calentura catarral) txarragotu dalako. An dagoz bere ama eta arrebea.
17. Ostirala. Eguraldi ona. Goizean eskolak. Gau txarra. Sabino Arana ikasleak oso gaizki jarraitzen dau. Goizean osagilleen batzarra: V..... eta B..... osagille jaunak eta abar. Arratsaldea. Bere gurasoak eta anai-arrebak berarekin dagoz. Valladolid'tik azterkariak (examinadores) etorri dira: Pola, Picabea, Galo eta Perez Minguez.
18. Larunbata. Eguraldi ona. Azterketak asi dira. Lau ikasleak naiko gaizki jarraitzen dabe: Arana, Albizuri, Celestino S. Pelayo eta Villar.
19. Igandea. Eguraldi ona. Osagilleen batzarra gaisoi buruz. Etxeko bizargillea ere alborengoaz (pulmoniaz) gaisotu da. Albizuri jagi da, eta beste geisoak obetotxoago. Sabino Arana'ren gurasoak emen gelditu dira.
20. Astelena. Sargori. Azterketak aurrera doaz, beti legez. Iru gaisoak obetotxoago... Illuntzean irurak zerbait astunago gaurko sargoriaz...
21. Asteartea. Eguraldi ona. San Luis Gonzaga'ren jai. 9'tan meza nagusia. Azterketak aurrera doaz. Arana gaizkiago. Arratsaldean, Aranak gaizkiago jarraitzen dau. Besteak obeto.
22. Asteazkena. Eguraldi ona. Arratsaldean euria, zirimiria. Azterketak aurrera doaz. Arana ere obeto. Beste biak ondo, Jaungoikoari eskerrak. Laus Deo.
23. Osteguna. Laiñoa. Eguraldi ona. Gaisoak ondo, azterketak ere bai.
24. San Joan. Eguraldi ona. Sabino Arana ondo. Azterketak aurrera. Gaisoak obeto. Ikasleen

- gurasoak etorten asi dira ikasurteko azken Sarien Banaketarako... San Joan eguneko suak, ziripletakin, zarata andia gau osoan... San Joan zugaitza, eta iturrian lore-uztak (arcos).
25. Larunbata. Eguraldi ona. Beroa. Goizeko 7'etan ikastetxeko «Txaranga» musikaz Antigua'ko eleizan meza aurtengo mesede guztiakatik eskerrak emoteko, baita orain bi urteko gertakariak. Andik datoz bidean «txaranga» jo ta jo, eta onela sartzen dira ikastetxean... Azterketak aurrera doaz. Ikasleen senide ta guraso geiago datoz.
26. Igandea. Eguraldi ona. Meza Antigua'n 7'etan... Arratsaldean Sarien Banaketa aterpe nagusian... Gero ikasle asko euren etxeetara doaz. Gaisoen artean bakarrik Sabino Arana gelditzen da. Gauaz argien jai, ziripletak eta musika.
27. Astelena. Eguraldi ona. Gipuzkoako eta Errioxako ikasle asko bere etxeetara doaz.
28. Asteartea. Eguraldi ona. Batxilerko azterketak asten dira, 1'go urtekoak.
29. Eguraldi ona. San Pedro eta Paulo jai. Batxillerren azterketak aurrera.
30. Osteguna. Eguraldi ona. Azterketak eguerdirako amaitu dira. Sabino Arana, gaisorik egona ere, esamiñatu da.

## UZTAILLA

1. Ostirala. Eguraldi ona.....
2. Larunbata. Laiñotsu.....
3. Igandea, Eguraldi ona. Batxiller gaisoa, Arana'tar Sabino obeto dago. Bere Aita Santiago'k eta arrebeak zaintzen dabe... Bere ama eta beste anaia ere etorri dira...

\* \* \*

Aita Arana Jose Iñigo'ren, EGUNARIAK ez dauku Sabino Arana'ri buruz ezer geiago adierazten. Uste dot Uztaillan 3'garren egunean bere guraso eta anai arrebakin Abando'ra joango zala.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI, S. J.



## Karlatarren Bigarren Gudea

# AMOREBIETA'KO ITUNBENA

Loraillaren 16'garren egunera-ko goizeko lenengo orduetan 5.000 zakote-janari gertu egiazala agindu jakon Mondragon'eko Alkateari. Baiña onek, Baltzen alde egoalako bederatziretan ondiño ez eban bananandu zakoterik.

Geienak zigortu egin bear zala aren gizabidebakokeria ta zintzotasuneza uste ta eskatzen eban, baiña, sarritan jazoten jaken lez, bizkaitarrai euren artuemonetan probintzianuekaz ez dakigu zelango konpleju korapillatsu menpekotza dala-ta edo, Bizkai-Aldundegi Gudalburu Uribarri onatsuari iguin izan jakon iñor zogortzea.

Alan-eta be geienen asarre ta sumindura bigunduteko Alkateari dirua-zigorra ezarri eutsoen, baiña, erritik urteterakoan parkatu be bai.

Dana gerturik egoala, Gudalostea Oñate'ra abiatu zan.

Baiña guztien gogoa ori zala uste dozue?

Bai zera. Karlista giputzen buruzagi Amelibia bildurtuta aurkeztu jakon.

Gudalburu-ari esanaz 300 txapelgorri Oñate erri barruan egozala, ta origaitik etzala izango zentzuzko ta egoki ara joatea.

Bizkai'ko Aldundegikoak ta Uribarri'k, orraitino, Oñate artu bear zala erabagi eban, onelan beingoan ta erabatez Gipuzkoa guztia Karlatarren alde irabaziko zalakoan.

Amelibia'ri gogo-asmo au ez jakon atsegin. Baiña Uribarri'k aurrera joateko, ezbaietan gelditu barik, agindu eban.

Mondragon'etik, ezkerr-aldeko bidekamiñoa itzita, mendietako bide laburrena zear Karlistek joiazala, Bergara'n'300 Txapelgori babetu zireala ajakin eban.

Serrano'k eta baltz-liberalak ez ekien Karlatarrak zelan ebiltzan, arerioen goraberak eta ibillaldiak jakin barik.

Txapelgorrien barria Jakinda, beste bide bat artu eban; Zubillaga'n orduerdi Oñate'tik, kamiñora jatsi ziran. Aurrean Amelibia joian bere taldekin.

Ostean, lenengo Bizkaitarren batallioa Arratia'koa zana.

Batbatean zegaitik zan jakin barik, gipuzkoarrek iges egin eban ariñiketan.

Zer izan eta zan?

Geroago jakin eban: Amelibiak artu eban eskutitz bat Oñate'tik, 300 Txapelgorri gerturik egozala Karlisten bidera urteteko.

Orduan, Uribarri Gudalburua berbera ta Sierra, jarraibidea emoteko, danon aurrean egozan.

Gitxi-gora-bera Karlistik ta baltzak indar bardiñak eukaezan.

Arratiar adoretuak eroaten eban gudaketarik. Gogorrena erraten eban.

Euren ondora etozan lagun asko.

Bildurtu ziran Liberal-Baltzak ainbeste talde ikusirik.

Arratiarren muniziñoak bakan-kan du ziran ta Uribarri'k lagunduteko agindu eban.

Liberalak, artegalarri ta estu, atzeratuten asi ziran.

Karlistak arein atzeraldia ikusirik, deardaka eskatu eutseen lagunai zaldun-taldea.

60 zaldun Baltzen ostean zamaketa urten ziran ta ustuketa.

Onein aurrean Gudalburu bioztun Uribarri ta bere lagun Noriega trapaladan.

Larregi aurreratu edo, Uribarri, gizon andi ta kementsua tiroiña (bala) bategaz zauriturik geratu zan, baiña bere aldeko gudariak

bildurrik artu ez egien zalditik jatsi barik, aldendu egin zan.

Uribarri Gudalburua'ren zauriagaitik Mendigorria Baltzen batallioa ez zan atxillotu ta Karlisten eskuetan jasi.

Emen, Oñate'n, egindako guda-keta ikaragarria izan zan.

Burrukea alkarren gaiñean, eskuz-esku, soiñez-soin izana galtze andiak egin ziran.

Liberalak ogetamar illak eta laurogei zaurituak euki ei-ebezan.

Karlisten eskuetara atxillotuak amabostera eldu; Karlistik eura kazpi illak eta ogei zaurituak.

Atxillotu ta menderatu egin ebanai, Karlatarrek gizabide ona egin eutseen: Ba-dakizue Mañaria'ko gudaldian karlista zaurituai eriotza emon jakoela biotz gogorrez, basatiz ta errukiz barik?

Benetan gizabide ta jarduera desbardiña egiten ebena! Karlistik ez bakarrik bizitzea parkatu, baita berba mingarririk esan bage Kurutze Gorriari eskuratu be biotz bigunez, ta ganera dirua emon.

Gudaldi onen lenengotan Baltz-Liberal batzuk menperatu ziran karlista gudari bioztun bat ilda gero.

Karlistek, onen lagunek, amurru andia artu eban, batez be ikusirik Mañaria'n gudaketa amaituta ostean, gaiztakeri izugarria egin eban iltzaille txapel gorri bik. Baiña baltzak auspeztu ziran negarrez esaten bizitza beintzat ez egioela kendu.

Bizkai'ko Aldundegi'ko Buruzagiak erantzun eutsen trunkil egoteko; On Karlos'en jarraitzailleak atxillotuak, iñoiz be ez ebeza-la ilten epaitu barik eta erru barik.

LETONA'k

# "BATUA"

## EUSKERA ILTEKO

Egun onetan argitaratu da, euzkalki edo erri euskeraren aldeko idazti eder bat. Idazti au, igaz argitaratu zan EUSKALTZAINDIA'ri EPAIKETA'-ren ondorengoa da, esan daigun, indarbarritzeko eraskin.

EUSKALTZAINDIA'ri EPAIKETA, jakiñekoa dan lez, euzkera utsez egindakoa da, baiña euzkerarik ez dakienak be jakin dagien nortzuk eta ze etorrerako batua dan, EUZKALTZAINDIA EL BATUA Y LA MUERTE DEL EUSKERA, gazteleraz egindako idaztia da.

Gaur, zoritxarrez, batua dala ta, batu ori, ulerkaitz dan lez, erriak, euzkaldun erriak, irakur arduraga galdu dau, ikusi baiño ez dago, gazte taldeak gaur, guztiak ez ba'dira be geienak, gazteleraz dabilz euren alkar-izketan ta euzkerentzako ardura gitxi dago, ia euzkerarik ezin leiteken egin, geienak, irribarrez geratzen dira begirakundurik, ta...ia, ni aldendu ondoren, jakin bear litzake, ze jardunkizun erabiltzen daben.

\* \* \*

Franco'ren eriotz-inguruan, ain zaletasun aundia asi zan euzkera gaitik, erdel abizenak be, aldatu nai izan ebazan. Ikastolak ere goragarriak izan ziran, uste genduan, bein betiko, euzkera, sendotuko zala Israel'darren antzera, bost edo sei urtean, danok euzkeraz aituko gintzala, euzkera, gaztelar ta prantzez izkuntz gañean egongo zala ta, ...zer gerta zan... ¡...!-?...

E.A.J.ak, aurrez ekin-bidetu bearrean, ezkertar iraultzalearen jabetasun eskutan laga ta, «politique-ria» ortan saiatu. Zer gertatu izan eta da?

1.<sup>a</sup>—Ikastoletan iraultzaleak umetxoari Jaungoiko - zaletasunaren gogoak aurkakotu.

2.<sup>a</sup>—Aragikeriz ta arduraz nabarmendu.

3.<sup>a</sup>—Gurasoen lotsa galdu.

4.<sup>a</sup>«Socialismo» ta ortik datorren atzeak biotzean sartu.

5.<sup>a</sup>—Euzkera, azken-arnas-ilzori bateko estualdi baten laga 16 bat urte onetan.

6.<sup>a</sup>—Amaitzeagaitik, ainbat eta ainbat begiztatutzen diran ukamen gaiak.

Gazte guztiak, oiturazko euzkal erri euzkaldunak, Ondarroa bertan, gazte geienak, jo ta ke dabilz gazteleraz, gazte oneik, euzkera jakin arren, oituko dira gazteleraz itz egiten eta onen atzekoak, ...zer?

Gu, EUSKERAZALEAK, EUSKERAZAINTZA, KARDABERAZ ta inguru ortan gabiltzazanok,

alegin guztiak ipiñi ta egiñalak egin... arren, EUZKERA'k egunetik egunera daroan atzerakada, ezin izango dogu geldittu, ...zer dala ta?, ...ba, ...ez daukagulako bear litzaken laguntasunik, baez de, E.A.J.ren laguntasuna euki bearrean, Alderdi onen joerak, ezkertarren burubidean dabilzazalako, ta gu, JEL'kide ta Sabin bideko zalekoak zurztasun itzal baten.

Gure Alderdi'ak daki edo beñik bein, jakin bear leuke, euskara batua ta batuzale guzti guztiak, ezkertarren arauditik datorren zikinkeri naste-borras-te bat dala ta, amasei bat urtetik onako argibideak euzkeraren buruz, zorigaiztoko galgarria izan dala, ta, uste dot, garaia dala, bear diran neurriak artzeko, gure izkuntza gaizkatu nai ba'dogu, baita be, izkuntza lez, beste erri-arazo ta txotxolokeri gaiak.

Alderdiak, aurrez aurre jarki ta ezkertar orrei, agiñak erakusten ez ba'dautsoz, erria, urtetik urtera, atzerapen aundiko arriskuan dago, gu, kalekuok, moltsokuok, txapleteria (chismografía) nunai entzuten dogunok, azterpen billaketa ta galdekuntzalari-rik (encuestador) onenak gara ta gure izkuntz maitareen eriotza ikusten dogun lez, ba-leiteke ikustea ain maite dodan Alderdiaren suntsiketa be, ba, ikusirik azken auteskundean egon dan nagitasuna (abstención) «socialismo»ren onurarakoa izatea, orren billa dabilzaz eta aletin guztia egingo dabena, jakiñaren gain egon bear gara.

Nagitasuna geitzen doiana, ezin geinke ukatu, autarlea (votante) gogaituta dago eta ez daben lez ikusten baketasun argirik, pozgarri barik dago auteskundetarako, olan ba, ezkerak orain arte nai dabena egin daben lez, iñungo alderdikidetasun edo erri goraberaren bazkidetasun bak autarleak diñoena da, zertarako eta nori emon laguntasuna?

Ortik ba autarlearen nagitasuna.

Gaur ez da bear litzaken lanik egiten, bazkide guztiok, argibide barik gagoz, batez be, izkuntz goraberan. Alderdiak, diñodan lez, ezker iraultzaleari lagata daukan lez izkuntz gaia, Alderdi'ko bazkideak, ez-jakintasunean gagoz eta «ibilaldi» (ibillaldi) ta antzerako txindi batzeak, JEL'tarren txindia izaten da geienetan.

Lekitio'ko «ibilaldi» (ibillaldi)'a euki dogu aurretan, txindi batze ori, ikastolarako laguntza izan ei da. Dirudian lez, Ondarroa'ko eliz-ikastola ez da ikastola, ba, «ibilaldi» (ibillaldi)'ko txindi batze ortatik baztertua izan da eta, bape barik geratzen da.

GORRI'k

# “EL BATUA”

«Euskera zetarako? EUSKALDUNA izateko.  
 Erdera zetarako? Erdalduna izateko.  
 “El batua” zetarako? BIZKAIERIA ilteko».

(Berba oneik Orrilla'ko «ZER»en idatzi nebazan...)

...Eta orain barrero idazten dodaz, batez be bizkaitar guztiak ondo jakin dagien «el batua» deritxon izkuntza zetarako dan: BIZKAIERIA ilteko!

Au bizkaitarrai ondo, ondo baiño obeto, sartu bear jaku buruan, gure buru-buruan... Ez da txantxetako arazoa, ba «el batua» aurrera ba'doa *ziur izan* BIZKAIERIA galdu egingo dala betiko, il egingo dala!

\* \* \*

Sabin'eri eutsoen gorrotoak eraginda, Sabin'en areio sasi-jakintsu batzuk orain 20 urte inguru «el batua» mordoilloa sortu eben, batez be BIZKAIERIA ilteko asmoagaz.

Asmo ori argi-argi ikusten da asieratik... Ukatu-eziña da, ba «el batua»ren sortzailleak, euren saiotegi-ko izkera barri ori sortzeko, BIZKAIERIA alde batera itzi eben, baztatu egin eben!

Oinperatu BIZKAIERIA ta, ostera, alperreko H ta erderakadak ugari sartu!

\* \* \*

Sabin bizkaitarra izan zan, bere euskera garbi ta jatorra BIZKAIERIA izan zan... Ez da arritzekoa, ba, «el batua»ren sortzailleentzat Sabin gizon madarikatua izatea.

Ikusi areitariko batek zer esan eban: «Sabin espainolista, integrista, arrazista ta antisozialista izan zan» (Irakurleak: «el batua» ori da).

Alan ba, BIZKAIERIA il egin bear zan!

(Eraile orreik gure «anaiak» ei dira... Kain eta Abel be anaiak izan ziran).

\* \* \*

Gero arrigarriena 1968'gn. urtean Arantzazu'ko Euskaltzaindiaren Batzarrean jazo zan... Sabin'en eta BIZKAIERAREN etsai amorratu areik eta euren lagun batzuk, jokabide maltzurragaz eta Judas baten laguntasunagaz «el batua» deritxon izkuntzari ateak iregi eutsoezan.

Orduetik, euskaldunak bananduta gagoz, alkarren aurka ta alkar ikusi-eziñik gabiltz! Sasi-jakintsu areik «el batua»ren ordeaz «el banatua» sortu eben!

\* \* \*

Eta, alan da guzti be, ausartza andiagaz eta ezetariko lotsa barik BIZKAIERAREN aurka gogor egi-ten dabe... Euretariko batek esan eban: «El batua»k bizitzeko BIZKAIEREAK il bear dau». Ta beste batek: «Bizkaitarren erruki barik, “el batua” sartu bear da Bizkaia'n».

Eta euskaltzain «el batua» zale batek: «Galtzailerik andiena BIZKAIERIA da!» (Euskaltzain one-gaitik onartu zan «el batua» Arantzazu'ko Batzarrean... Errudun nagusia bera izan zan!)

\* \* \*

Sabin'ek esan eban: «Euskerea ilten ba'da, ABERTZALERIK ez dalako izango da».

Guk diñogu: «BIZKAIERIA ilten ba'da, BIZKAITARRIK ez dalako izango da».

Bizkaitarrak! BIZKAIERIA da gure izatearen agerpenik nabarmenena ta gure eskuetan dago BIZKAIERAREN etorkizuna, gure eskuetan dago BIZKAIERIA eutsitzea ta indartzea, gure eskuetan dago BIZKAIERIA bizi daiten ala il daiten, gure eskuetan dago IZAN edo EZ IZAN (Hamlet ek esan ebanez).

BIZKAIERIA da gure AMA euskera, ez dogu gura ta ez dogu bear Ama-orderik!

BILBAO'TAR JON E.



EUSKERAZALEAK

# ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia